

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Mendizabal Yarzabal

*Donostia,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



Herrerako Peruenezar baserrian jaioa, Altza herriko zati zen garaian. Umetatik baserriko lanetan jardundakoa, besteak beste esnea partitzen. Bost senide ziren. Ama Errenteriakoa zuten, Oiartzunen bizitua, eta aita hernaniarra. Sagardoa egiten zuten etxean. La Sallen ibili zen eskolan. Luzuriagan egin zuen lana, eta gero kobratzaile moduan ere ibili zen, banketxe batentzat. [Jose Luis](#) anaiarekin batera egin diogu elkarrizketa.

Zintak

DON-090

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-04
- **Iraupena:** 141 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. 13 senitarteko etxean gose garaian

- **Erref:** DON-090/012
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:14:41. **Bukatu:** 00:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bost senideak, gurasoak, morroia, izebak, amonak, apopiloren bat... bizi ziren etxean, 13 bat. Gose urtetan ere denak bizi ziren elkarrekin eta jana gutxi zuten. Errenteriako gailera-fabrikako gailetak saltzeko ardua zuen emakume baten etxera joaten zen beraien izeba gailetak eskatzera, horrelakorik ere ez zuten-eta. Izeba hori beraien aitonaren arreba bat zen.

2. Sagardoa egiten eta saltzen zuten

- **Erref:** DON-090/017
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:23:22. **Bukatu:** 00:25:06

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa egiten zuten etxean eta erreal batean saltzen zuten litroa. Zizarra sagardo eginberria da. Kaletarrak garrafoiarekin edo botilarekin joaten ziren sagardo bila. Lehen etxeetan ez zen ardorik edaten. Pitarra ere egiten zuten.

3. "Mendaro Txirristaka" bertso-jartzailea

- **Erref:** DON-090/018
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:25:06. **Bukatu:** 00:27:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

"Mendaro Txirristaka" bertso-jartzailea Trintxerpera joaten zen arrantzako kableak jasotzen eta topoan (trenean) Herrerara joaten zen. Beraien sagardotegira joaten zen sardina zaharrak jatera. Begi bat falta zuen eta auto batek jo zuen. Gipuzkoa guztian zehar ibiltzen zen eta Ameriketara ere joandakoa zen.

4. 'Txirrita' bertsolaria beraien sagardotegian

- **Erref:** DON-090/019
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:27:51. **Bukatu:** 00:28:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>'Txirrita' bertsolaria beraien sagardotegian egondakoa zen. Han ondoan hargin lanetan ibilitakoa zen. Auzoan lau sagardotegi zeuden, baina Altzan 42.</p>

Transkripzioa

- Zuen sagardotegian beste bertsolaririk ibiltzen zan?
- Bai, gu... nere aurretik Txirrita. Eta aitu zian... kontatzen zuten, Txirrita in zun atzeko paretak. Oan, klaro, in dute kamiya doble, ta pareta haik danak Txirrita aritu emen zan hargintzan. Nola sagardotegira juaten zan. Ta auzuan´e sagardotegiya zan. Auzuan. Eta ordun esaten zuten eta gue andrian osaba Agiñakua, hua´re mutil gaztia, nola aritu zan hargintzan Txirritakin kontatzen zun harrek´e, Agiñako horrek. Eta gero sagardotegira. Ta auzuan zen lau sagardotegi. Inguruan. Baiño Altza partian zian, Altzako terrenotan bakarrik, ez dakit, berrogeita bi sagardotegi.
- A bai? Hainbeste?

5. Kongregazioetako kideek ezin dantzarik egin

- **Erref:** DON-090/031
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:39:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

Mezara igandero joan behar izaten zuten. San Luis kongregazioan batzen ziren mutilak, eta 'Hijas de María'n neskak. Hilabetea behin kongregazioetako kideak konfesatzera joan behar izaten zuten. Inoiz horietakoren bat dantzan arituz gero, helduta, kongregaziotik botatzea ohikoa zen. Apaiza kalean ikusiz gero ere, eskuan musua eman behar zitzaion.

6. Komulgatzeko txartela eta "txekorra saltzea"

- **Erref:** DON-090/032
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:39:22. **Bukatu:** 00:42:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Urtean behin "pasuzko txartela" atera behar zuten norbere izenarekin elizan. Komulgatzerakoan txartela hori eraman behar zuten eta horrela apaizak kontrola zezakeen zein joan zen eta zein ez. Asko Donostiara joaten ziren konfesatzera. Beraien auzoko gizon bat urtebete konfesatu gabe egon ostean, konfesatzera joan eta apaizak errieta egin zion. "Txekorra saltzera joatea" esaten zioten konfesatzera joateari.

7. Aitak "abastos"era jeneroa entregatu beharrean, dirua entregatu zuen

- **Erref:** DON-090/036
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:46:26. **Bukatu:** 00:47:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserritarrek jeneroa entregatu beharra zuten "abastos"en. Bere aitari kantitate asko eskatu zien, baina etxean ere horren beharra zutenez, akordio batera heldu zen bertakoekin eta diruz ordaindu zuen.

8. Langile etorkinen etorrera

- **Erref:** DON-090/037
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:47:40. **Bukatu:** 00:50:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialia

Laburpena:

Hemen gose asko egon arren, Espainia guztitik emigrazioa hasi zen. Espainiatik ehundaka pertsona heldu ziren. Etxe berean hiru edo lau familia pilatzen ziren. Bertako lantegietan, Pasaia Luzuriaga fundizioan, ontzioletan eta beste tailer askotan, horietako andana hasi ziren lanean.

9. PYSBE bakailao-ontziak

- **Erref:** DON-090/038
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:50:27. **Bukatu:** 00:54:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontzian arraina kontserbatzeko moduak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak

Laburpena:

PYSBEko armadore pasaitarrak bakailaotarako ontziak zituen. Bertako arrantzale askok soldadutza bertan egiten zuten. Bakailaoa Espainia guztian saltzen zuten. Bakailaoa nola kontserbatzen eta lehortzen zuten azaltzen du.

10. Altzak 84 baserri zituen

- **Erref:** DON-090/043
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:59:53. **Bukatu:** 01:00:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Altzako lurretan 84 baserri zeuden, eta denek zuten ganadua. Elkarriketa garaian, baserri gutxi zeuden eta ez zuten ganadurik.

11. Goieritik etorritako langileek etxean laguntzen zien

- **Erref:** DON-090/047
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:02:42. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ekonomia eta industria » Boom industrialia

Laburpena:

Umeak baserrian ere aritzen ziren lanean. Auzoan bizi ziren asko baserrietatik etorritakoak ziren eta beraienara ere joaten ziren lanera, laguntzera, kobratu gabe. Goierriko jende asko hurbildu zen inguru honetara.

12. Belgikatik minerala ekarri eta Arditurrikoa kanpora eramane

- **Erref:** DON-090/049
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 01:05:52. **Bukatu:** 01:09:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

"Capuchinos" fundizioa zegoen Erreenterian, 'Real Compañía Asturiana'rena. Belgikatik ekartzen zuten minerala bertan urtzeko. Beraien amaren aldeko aitona han aritu zen lanean. Arditurriko minerala trenean garraiatzen zuten, Oiartzundik Pasaiairaino. Baporeak nola kargatzen zituzten.

13. "Sábado inglés" eta lan-baldintzak

- **Erref:** DON-090/050
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:09:28. **Bukatu:** 01:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

"Sábado inglés" noiz hasi zen, larunbat arratsaldea jai egiten. Hala ere, larunbatez zortzi orduko laneguna zuten. Igandea baino ez zen jai eta urtean astebeteko oporraldia baino ez zuten. Askok ez zuten jai hartzen eta lanera joaten ziren diru beharra zutelako.

14. Herrerako zubia beraien etxe ondoan, argazki zaharrean

- **Erref:** DON-090/052
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:11:08. **Bukatu:** 01:12:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Irudi zahar bat du Jose Luisek eskuetan. Bertan Herrerako zubia ikusten da eta haren azpian ageri da beraien jaiotetxea, Peruenezar. Trena zubi hartatik pasatzen zen. 21 metroko altuera du.

15. Ikatzezko trenetako merkantzia

- **Erref:** DON-090/053
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:12:03. **Bukatu:** 01:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Pasaiaiko portuko kargak beraien etxe ondoan eraiki zuten tren zubitik pasatzen ziren. Txokolaterak, ikatzezko makinak, ziren denak. Instalazio elektrikoa bazegoen, baina baporezko makinak erabiltzen zituzten.

16. Guardia Zibila tren-bidaiariak miatzen

- **Erref:** DON-090/054
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:13:43. **Bukatu:** 01:16:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Estraperloko jeneroa trenean ere garraiatzen zuten. Eta trena beraien etxe ondoko zubitik pasatzen zenean, askotan ogi-zakuak-eta botatzen zituzten han, Pasaian Guardia Zibila egonez gero zain. Gero botatakoaren bila etortzen ziren. Guardia zibilek trenetako bidaiariak zeramatena miatzea normala zen. Behin beraien aitari 15 kilo babarrun kendu zizkieten.

17. Pasaiaiko portuko estraperloaren zain soldadua

- **Erref:** DON-090/055
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:16:08. **Bukatu:** 01:17:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Pasaian Galiziatik egurra ekartzen zuten bapore batzuk zeuden. Tartean irina ere ekartzen zuten ezkutuan. Bertan zaintzen egoten zen soldaduak harrapatutako guztia kentzen zien.

18. Peruenezar uholdeek harrapatuta

- **Erref:** DON-090/056
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:17:47. **Bukatu:** 01:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

1932ko uholdeek beraien etxea harrapatu zuteneko argazkiak erakusten

dizkigute. Hiru lagun ito ziren urte hartan. Euria egiten zuenean, askotan gertatzen ziren uholdeak. Elkarrizketa aurreko azkenak 1992. urtean izan ziren, ordura arteko haundienak, Jose Luisi ganadua harrapatu zion. Plazako etxeak ere ur azpian gelditzen ziren. Itsasoaren alturan dago auzoa. 1992an ganadua igerian ibili zen plazan zehar.

19. Tranbia zaldiekin funtzionatzen zuen

- **Erref:** DON-090/060
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:23:28. **Bukatu:** 01:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Lehendabiziko tranbiak zaldiekin funtzionatzen zuen. Erreteriatik etortzen zen tranbia hori. Argazki zahar batean erakusten digu hori.

20. Farolariak

- **Erref:** DON-090/076
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:45:52. **Bukatu:** 01:47:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Farolariak. Farolak gasezkoak ziren eta farolak pizteaz eta itzaltzeaz arduratzen ziren. Jose Luisek dio trenbidean ere aritzen ziren farolariak.

21. Gauzainak

- **Erref:** DON-090/077
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:47:44. **Bukatu:** 01:49:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Donostiako kaleetan gauzainak ("serenoak") ibiltzen ziren gauetan. Portale guztietako giltzak zituzten. Hauei ez zien Udalak ordaintzen, bizilagunek ordaintzen zien; ondorioz, erretiro gabe gelditu ziren. Kaleetako argiak gasezko farolak ziren. Herrerara ez zen gasa heldu, bonbillaren bat edo beste zuten etxean.

22. Tabernara berriak irratian entzuteko

- **Erref:** DON-090/079
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:51:50. **Bukatu:** 01:53:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Irratia taberna batean zegoen. II. Mundu Gerrari buruzko berriak entzuten tabernan batzen ziren berriak entzuteko. Ardo porroia edan eta kakahuesak jan, hori zen orduko tabernetako plana.

23. Gerra hasiera Herrera inguruan

- **Erref:** DON-090/080
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:53:05. **Bukatu:** 01:54:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Espainiako Gerra Zibilean, nafarrak Oiartzun aldetik, Altzibartik, hasi ziren tiroka. Hiru hilabeteen bertan egon zen frontea. Herrerako jende askok alde gin zuen beraien jatorritako tokietara, batez ere Goierri aldera.</p>

24. Nazionalek batzokiko gauzak erre zituzten

- **Erref:** DON-090/081
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:54:33. **Bukatu:** 01:56:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Gerra hasieran nazionalak sartu zirenean, Irujo buruzagi abertzaleagatik galdetzen zuten erreketeei. Elizako kanpaiak jo eta Herrerako batzokira joan ziren. Han barruan zeuden argazkiak atera eta su eman zioten. Gero Donostia aldera joan ziren.

25. Komunisten eta abertzalen arteko liskarrak

- **Erref:** DON-090/082
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:56:14. **Bukatu:** 02:00:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak

Laburpena:

Trintxerpen komunistak zeuden, CNTko kideak. Blindatutako kamioi bat zuten. Bertakoei eskopetak kendu zizkieten, beraien aitari ere bai. CNTkoek Herrerako zubia bota nahi izan zuten eta dinamita sartzeko zulatzen aritu

ziren; baina nazionalistek kontra egin zien. Bilbo aldean ere CNTkoek zubiak bota nahi izan zituzten. Elizak ere erre nahi zituzten eta nazionalistak horiek zaintzen aritu ziren. Jende askok baporetan egin zuen alde.

26. Gerratik bueltan etxerik eta lanik gabekoak

- **Erref:** DON-090/083
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 02:00:01. **Bukatu:** 02:01:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Beraien familian ez zen inor joan borrokara Espainiako Gerra Zibilean. Asko etxe barik gelditu ziren, gerratik bueltan etxea hutsik aurkitu baitzuten. Beste askok lana ere galdu zuten, nagusiak ez baitzuen langilea berriro hartzeko derrigortasunik. Abertzale askok, "gorriek", etxebizitza lortzeko arazoak ere izan zituzten.

27. Ordu extrak ez sartzearen kartzelara

- **Erref:** DON-090/086
- **Iraupena:** 0:05:33. **Hasi:** 02:04:18. **Bukatu:** 02:09:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Ondarretan zegoen kartzela. Patxi ere ezagutu zuen kartzela. 18 urte zituela Pasaiaiko portura joan zen lanera. Ordu extrak ez sartzearen lanetik bota eta kartzelan sartu zuten Patxi. Hamar bat egunez egon ziren 29 lagun. Ziega bakoitzean zazpi lagun zeuden. Patxi denen artean gazteena zen, berez 21 urtetik beherakoak ez baitzituzten onartzen. Ziega barruko baldintzak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com